

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko irailaren 3a / 595. zenbakia

EUROPA BIZIKLETAN

Bergararrak,
turismoa eta kirola lotuz



URTEAGA: LANAK URRIAN HASIKO DIRA/4 • FUTBOLA: BERGARA-PASAJES LIGA HASTEKO/10

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 3**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 4**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- DOMEKA, 5**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- ASTELEHENA, 6**
CAMACHO. Oxirondo 4. 943 76 11 74
- MARTITZENA, 7**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15
- EGUAZTENA, 8**
GUALLAR. San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUENA, 9**
MOZOS. Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONOJAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozako medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaitzak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea. Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30.
Zapatuak eta lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Santa Marina
Zapatuak:
19:00.
Domekak:
13:00. | Antzuola
Domekak:
10:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Uzarraga
Domekak: 10:00.
Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | San Juan
Domekak: 11:00.
Elorregi
Domekak: 10:30. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | |
| Ubera
Domekak: 10:30. | |
| San Juan
Domekak: 11:00. | |
| Elorregi
Domekak: 10:30. | |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean.

OHARRAK

ODOL ATERATZEA
Bergarako Odol Emaileen Elkartek aditzera eman duenez, odol ateratzea egingo dute datorren eguaztenean, irailak 8. Ohikoa denez, Seminarioan izango da, 18:30ean hasita.

1948AN JAIOTAKOEN AFARIA
1948an jaiotako bergarrek afaria izango dute urriaren 2an, Zabala jatetxean. Izenematea (45 euro) zabalik dago Euskadiko Kutxan irekitako kontu baten. Afari egunean autobusa izango da jatetxera joateko, 21:00etan Frontoian.

ARANZADI IKASTOLAREN OHARRA
Aranzadi Ikastolako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek datorren egunean, hilaren 9an, hasiko dute ikasturtea. Edozein argibidetarako 943 76 90 71 telefonora jo dezakezue.

KIROL ZERBITZUA
Udaleko Kirol Zerbitzuak 2004-2005 denboraldirako kirol eskaintza plazaratu du. Argibideak 943 77 91 67 zerbakian.

JARDUNENAGENDA

TRIKITI ETA BERTSO ESKOLA
Trikiti eta bertso eskolaren ikasturteari begira izenematea zabalik dago Jardunen. Argibideak 943 76 08 19 zerbakian.

BEGIRALE LAN POLTSA
9-16 urte bitarteko gaztetxoekin lan egiteko begiraleen lan poltsa osatu nahi du Jardunek. Argibideak: 943 76 08 19.

KANTU LIBURUXKAK
Euskal kantuen liburuxkak salgai daude Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan, Errotalden, bi euroren truke.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildil okindegia), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubietza, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEBERGARAN


Oxirondoko merkatua inauguratu zuten

Victoriano Gallastegi alkateak Oxirondoko merkatua inauguratu zuen 1994ko irailaren leian. Azoka berriak 300 milioi pezeta inguruko aurrekontua izan zuen eta zeresan ugari eman zuen inaugurazioaren aurretik. Udalaren eta merkatarien artean tirabira ugari izan ziren postuen salmenta zela-eta.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Tripazilla"



Zilborrari deitzen zaio tripazilla.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 25	10 °C
MAXIMOA Martitzena, 31	26 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,3 l
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 25	24 °C 10 °C 0,3 l
Eguena, 26	20 °C 15 °C - l
Egubakoitza, 27	25 °C 10 °C - l
Zapatua, 28	25 °C 12 °C - l
Domeka, 29	26 °C 14 °C - l
Astelehena, 30	22 °C 13 °C - l
Martitzena, 31	26 °C 15 °C - l

San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKOPELIKULAK

'FAHRENHEIT 9/11'

ZUZENDARIA: MICHAEL MOORE.

HARIA. *Bowling for Columbine* dokumentalaren ondoren, berriro ere bazterrak harrotu ditu Michael Moore zinegileak. Oraingoan George Bush AEBetako presidentearen politika jarri du hankaz gora.

TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean, 19:30ean (ik. eguna).

PUNTUAZIOA: ●●●●●



'ZAFARRANCHO EN EL RANCHO'

ZUZENDARIAK: WILL FINN ETA JOHN SANFORD.

HARIA. Walt Disney etxearen azken marrazki bizidunetako filma. Asmo onik ez duen gizon batek baserri bat eskuratu nahian dabil; baina ustekabeak behiek, karatea egiten dakien zaldi batek eta gainerako abereek aurre egingo diote...

TOKIA ETA ORDUA. Zapatuan eta domekan, 17:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●



Musika eta liburuak


bilintx

Ibargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxa: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

ATREBENTZIAEZPADA/ Oporrak bukatu ondoren, ikasturte berria hasteko gogoz al zaude?



XABI BERASATEGI
12 urte



AINHOA LAZKANO
8 urte



JULEN UNZUETA
11 urte



DORLETA NARBAIZA
8 urte



JON ARREGI
10 urte



MAIALEN ESNAOLA
9 urte

Aurten DBH ikasten hasiko naiz, baina ez, ez daukat inolako gogorik eskolara bueltatzeko. Oporretan primeran pasatu dut. Almerian eta Eskozian egon gara, eta asko gustatu zait ikusitakoa.

Lagunekin egoteko gogoz nago, hori bai, baina ikastolara joateko, berriz, ez. Oporretan oso gustura ibili naiz, eta orain berriro goiz altxatu beharra-eta gogorra egingo zait.

Ez daukat batere gogorik eskolara joateko. Horren ondo egoten gara oporretan... Nahiago dut lagunekin kalean elkartu eskolan baino. Oporretan ederto ibili naiz, Bergaran.

Ba, egia esateko ez daukat gogo handirik ikasturte berria hasteko. Egunero bederatzietan jaiki beharra... Uff! Lagunekin berriro elkartzeko gogoz nago, hori bai.

Ez, ez daukat gogorik eskolara bueltatzeko. Oporren ostean gogorra egiten da ikastolara joatea, goiz jaikitzea... Oporretan oso ondo ibili naiz. Andaluzian eta Eskozia aldean egon gara.

Datorren astean hasiko gara, bosgarren mailan, eta banago gogoz ikasturtea hasteko, lagunak berriro ikustearren batez ere. Udan gustura ibili naiz, opor onak izan dira.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK HERRIKO DENTISTEI Irakurle baten keza jaso dugu aste honetan. Gure irakurle honi emergentzia bat sortu zitzaion abuztuaren 9an eta zortzi dentista kontsultarengana jo ondoren, ez zuen batera zabalik aurkitu. Urtean zehar herriko dentisten bezeroa izanik, ez zaio zuzena iruditzen abuztuaren dentistarik ez egotea. Farmazien antzerria, abuztuaren ere zerbitzua eskainiko beharko luketela dio. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /5

KIROLA /9

KULTURA /12

Tailer berria Miguel Altunan

Miguel Altuna ikastetxean pabiloi berria egiteko lanak hasiko dira hurrengo astean.

Liga hasiera Agorrosinen

Bergara KEko preferente mailako taldeak Pasajesen aurka hasiko du liga, zapatuan Agorrosinen.

Gazta dastatze ikastaroa

San Martin jaien barruan, gazta dastatze ikastaroa izango da Udalaren eskutik irailaren 17an.

ASTEKODATUA

2.182

KONTSULTA EGIN DITUZTE TURISMO BULEGOAN

Udalak emandako datuen arabera, udako hilabeteetan 2.182 kontsulta egin dituzte Turismo Bulegoan. Era berean, 64 bisita gidatu antolatu dituzte bisitariak gure herria ezagutu zezaten.

BESTEKEESANA

“Arraroa dirudien arren, Esloveniarekin harreman komertzialak dituen Gipuzkoako enpresa bakarra gara.

1999. urtean hasi ginen Esloveniara esportatzen. Gure produktuak ostalaritzara bideratuta daude eta badirudi Esloveniak baduela etorkizuna turismoari dagokionez. Gure helburua da Lacorren produktuak herrialde osoan ezagutzera ematea eta gero, horren bitartez, Europa erdialdeko beste herrialde batzuetako merkatuan barneratzea.”
JOSE JABIER LARRAÑAGA / Lacor enpresako esportazio arduraduna ‘El Diario Vasco’/04-08-01

“Aurrez egindakoa gainbegiratzeko, gauzak alde artistikotik begiratzeko garaia da uda. Bidaiatzen dudanean, nire koaderno, arkatz edo akuarelak eramaten ditut.”
JESUS MARI LAZKANO / Pintorea ‘El Diario Vasco’/04-08-04

BERAIEKDIÑOĖ/ Jon Suinaga



Herria zaintzen

Oporretan herriko jende askok ospa egin du, Mediterraneora, Pirinioetara, Karibera... Bergatar asko ere, herria zaintzen gelditu gara. Aurten Euskal Herrian eguraldia nahiko ondo portatu da. Giro onak lagundu du Bergaran primeran egoteko. Behintzat, auto batekin mugitzeko, bestela...

Abuztuko lehen eta azken asteetan jende ugari zebilen herrian eta ia denda eta taberna guztiak zabalik zeuden. Erdiko bi asteetan ordea goizetan denda batzuk zabalik eta giroa bazegoen kaleetan, baina arratsaldeetan eta aste bukaretan bakarti gelditzen zen gure herria. Hori bai, noiz-behinka turista despistatu batzuekin topatzen zinen. Askotan jende asko egun pasa joan edo irteera bat egiten zuen inguruko mendietan, hondartzetan, urtegietan, igerilekuetan, jaietan... Herrian eguna pasatzea ez zen gauza makala. Berandu

jaiki ohetik, herriko kaletik bueltatxo bat eman, erosketak egin, kafetxo bat tabernan edo paseotxo bat. Bazkal ostean siesta galanta eta gero Olinpiadak edo txutxu-mutxuak telebistan, edo liburutxo polit hori irakurri, edo ezer ez egin, edo beste kafetxo bat, edo

“Samintasun handiz igerilekuarekin oroitu gara udan. Bi urterako goaz igerileku barik”

tragotxo bat terraza baten, edo... Hori bai, ostegun gauetan plazara zinea ikustera. Gabian etxean goxo-goxo logura etorri arte, presa barik... Hurrengo egunean ez zen goiz jaiki behar eta!

Samintasun handiz igerilekuarekin oroitu gara. Bi urterako goaz igerileku barik eta oraindik ez dakite zer egin eta nondik aterako duten dirua. Momentuz hartu dituzte zortzi hilabete dena apurtzeko eta hortik aurrera... Auskalo! Hau bai lotsagabeke-ria!

Azken astean opari berezi bat egon da herriarentzat, Asier Altunaren lehen luzemetrairenen filmazioa herriko kaleetan. Aupa Etxebeste!

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Iratzi Agirreazaldeg
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

AZPIEGITURAK/ Ur kolektoreko lanak 2005eko udan amaituko dituzte; Elgeta, Antzuola eta Bergarako ur zikinak bideratuko dira Mekolaldeko araztegiara

Ur kolektoreko lanek beste lauzpabost hilabete iraungo dute Ibargarai inguruan

EDU MENDIBIL

Ur zikinen kolektoreko lanek beste lauzpabost hilabete iraungo dute Ibargarai inguruan. Abuztuaren hasieratik Sobrino enpresa ari da Ibargarai eta Bideberri inguruan lanean, herriko trafikoan lanon eragina nabaria delarik.

Sobrino enpresako ordezkarien arabera, beste lauzpabost hilabetez izango dira lanean Ibargarai inguruan. Jakingo duzueenez, hiru enpresa dabilta ur zikinen kolektoreko lanekin: Altuna y Uriak Osintxutik Amillaga bitarteko tartean dihardu; Tecsa enpresak San Juan eta Amillaga bitarteko tartean eta Sobrinoko langileak, berriz, herri barruan dabilta, Bideberri eta Ibarra artean hain zuzen.

36 MILIOI EUROKO PROIEKTUA

Herri barruko lanak, esan bezala, otsailera arte luzatuko dira. Datozen asteotan Fraisko zuritik Ibargarai kaleko 12. zenbakiaren ingurura bitartean egingo dira lanak. Era berean, Masterrekan eta Zurraderon ere hoditeria sartuko dute hurrengo hilabetean eta trafiko mozketak egin beharko dira beraz. Bestalde, Torrekua eta San Antonio bitarteko errepide zatiak itxita jarraitzen du eta Amillagako irteeran ere lanean jarraitzen dute oraindik.



Sobrino enpresako langileak ari dira Bideberri inguruan ur kolektoreko lanekin.

Ur zikinen kolektoreko lanak 2005eko udan amaituko dituzte. Lanen aurrekontua, Mekolaldeko araztegi barne, 36 milioi euro ingurukoa da eta Eusko Jaurla-

ritzak, Diputazioak eta Gipuzkoako Ur Partzuergoak ordainduko dituzte lanok. Mekolaldeko araztegi martxan jartzen denetik bost urtera bitartean Deba ibaia-

ren ekosistema birsortzea da helburu nagusia.

Hain zuzen ere, Elgeta, Antzuola eta Bergarako ur zikinak bideratuko dira Mekolalde-

ko araztegiara eta behin tratatu ondoren, Deba ibaira itzuliko dira. Mekolalde-Torre etxean kokatuko dira araztegi berriko bulegoak.

Urteagako lanak urrian hasi eta 2005eko abenduan amaituko dira

EDU MENDIBIL

Diputazioko Bide Azpiegiturarako departamenduak agindu duenez, urrian hasiko dira Urteaga kaleko lanak. Bergaratik Antzuolara joateko errepide zaharra itxita dago joan den azarotik, Eskusarte harrobian lerradurak gertatu ondoren.

Diputazioko iturrien arabera, arazoa konpontzeko lanak bi faseetan egingo da. Lehenbizikoan trenbide zaharreko ibilbidea eusteko lanak egingo dira. Esan bezala, lanak urrian hasiko dira eta lehen fase hori 2005eko urtarriean bukatuko da. Lehen faseko lanen aurrekontua 1,5 milioi eurokoa da.

LANAK 2005EKO BUKAERARA ARTE

Bigarren faseak 2,5 milioi euroko aurrekontua dauka eta mendi-mazelaren eustea du helburu.



Urteaga kalea joan den urteko azarotik itxita dago.

Terrenoaren ezaugarriak direla eta, zailtasun handiko lana da. Apirilean hasi eta 2005eko abendurako lanak amaitzea da Diputazioaren asmoa.

Gogoratuko duzue, Urteaga kaleko itxierarengatik kaltetutako enpresa eta partikularrek mobilizazioak egin zituzten uztailean, lanen atzeratzea zela-eta.

LABUR

Herrian azaldutako pintadak publikoki salatu ditu Victoriano Gallastegi alkateak

Victoriano Gallastegi alkateak publikoki salatu du abuztuaren 26ko gauean herriko puntu ezberdinetan egindako pintadak. "Jokae-ra honek eraikinetako fatxadei kalte konponezinak eragiteaz gain, herriaren imajina ere kaltetzen du, pintadak kentzeak Udalari suposatzen dion gastua ahaztu gabe" adierazi du alkateak.

San Joxepe erretiratuen elkarteak irteera egingo dute Legazpira irailaren 14an

Irun, Errenteria eta Legazpiko erretiratuekin elkartuko dira San Joxepe elkarteak irailaren 14an, Legazpin. Ibilalditxo bat egin ondoren, bazkaria Legazpin bertan egingo dute.

Izenematea (14 euro) zabalik dago erretiratuen egoitzan, hilaren 10era arte. Interesatuak 943 76 30 09 telefono zenbakira jo dezakete argibide eske.

Hainbat kirol jardueratarako izenematea zabalik dago Udaleko Kirol Zerbitzuan

Udaleko Kirol Zerbitzuak prest dauka 2004-2005 denboraldirako kirol eskaintza. Mantentze gimnasia, spinning eta aerobic ikastaroak irailaren 13an hasiko dira. Bestalde, yoga ikastaroa hilaren 20an hasiko da. Izenematea zabalik dago Kirol Zerbitzuan.

Edozein argibidetarako 943 77 91 67 telefono zenbakira jo dezakezue.

HEZKUNTZA / Bost urterako plastikoen tailerra eraikiko dute Seminario aldera, 80.000 euroko aurrekontuarekin

Miguel Altuna institutuan pabiloi berria egiteko lanak hasiko dira hurrengo astean

EDU MENDIBIL

Plastikoetara zuzendutako industria pabiloia eraikitzen hasiko dira hurrengo astean Miguel Altuna ikastetxean, Seminario aldera. Lanen aurrekontua 80.000 eurokoa da eta aipatutako tailerra datozen bost urtetan erabiliko da.

Itxaki Berasategi arkitektoak egindako proiektuari jarraituz, datozen astean hasiko dira pabiloi berria egiteko lanak. Pabiloi berria Miguel Altuna ikastetxearen jarraipena izango da, Seminario aldera, eta 16,8 m x 12,70 mko neurriak izango ditu. Ikasleei zuzendutako plastikoko tailerra izango da eta urriaren amaierarako lanekin bukatzea espero da. Aipatutako proiektuak aurrera egiteko beharrezkoa izan da Espainiako Estatuaren baimena, bera baita Seminarioko terrenoen jabea. Aurrekontua, esan bezala, 80.000 eurokoa da, eta pabiloia bost urteko bizitza besterik ez du

izango. Halaxe hitzartu dute Jaurilaritzako Hezkuntza departamentuak eta Espainiako Estatuak. Hain zuzen ere, bost urte barru, Miguel Altuna ikastetxe berria Mayc inguruko terrenoen egotea espero dute hezkuntza saileko arduradunek. Jose Manuel Ibargoien arkitektoa hasi da dagoeneko ikastetxe berriaren proiektua erredaktatzen.

IKASTETXE BERRIA MAYC INGURUAN

Izan ere, Udalak eta Eusko Jaurilaritzak 2001. urtean sinatutako hitzarmenaren arabera, Udalak Mayc inguruko terrenoak utzi zizkion Jaurilaritzari bertan ikastetxe berria eraiki ahal izateko. Horren ordainean, Udalak Ibargarai kalean dagoen Miguel Altuna ikastetxearen zati bat eskuratu zuen, etorkizunean bertan etxebizitzak egin ahal izateko.

Miguel Altuna ikastetxe arduradunek beharrezkotzat jo dute pabiloi berria egitearen plana, egunean ikastetxean taillerretarako dagoen tokia nahiko eskasa zelako.



Ikasleei zuzendutako plastikozko tailerra Seminario aldera egingo da.

EDU MENDIBIL

Euskal Herrian bezala, turismoak gora egin du aurten Bergaran ere

E.M.

lazko datuekin konparatuz, turismoak gora egin du Bergaran aurten udan, Euskal Herriko tendentziari eutsiz. Udaleko Turismo Bulegoan 2.182 kontsulta egin dituzte udako hilabeteetan.

Xabier Aranburu udal museologoak emandako datuen arabera, abuztuan egin dira kontsulta gehienak: 1.028. Uztailean 605 egin zituzten eta ekainean, berriz, 549.

Etorritako bisitariei dagoeneko, ekainean Euskal Herriko turistak izan ziren nagusi. Uztailean, ostera, Espainiako estatu-

ko turisten txanda izan zen eta horien artean, madrildarren kopuruak nabarmen egin zuen gora aurreko urteko datuekin konparatuz gero. Madriletik etorritako 99 lagun zenbatu zituzten Turismo Bulegoan. Azkenik, abuztuan, Espainiako estatutik 677 bisita izan ziren, 336 katalanenak eta 155 madrildarrenak tartean. Aurreko urteetan bezala, Europatik eta Hego Amerikatik etorritako bisitariak ere izan ditugu. Iazko datuekin alderatuz, %10,6 igo da bisitarien kopurua.

Guztira, 64 bisita gidatu egin dira herrian, 606 lagunene parte hartzearekin.

IRAILAREN 30ERA ARTE ZABALIK

Udaleko Turismo Bulegoa apirilaren lean zabaldu zuten eta irailaren 30era arte izango da zabalik. Aste barruan 10:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:30era zabalik dago eta domeka eta jaiegunetan, berriz, 11:30etik 14:30era.

Aurreko urteotan bezala, Bilboko Nis enpresa arduratu da zerbitzua eskaintzeaz. Isabel Lopez, Josune Galartza eta Maialen Elortza dira Turismo Bulegoan lanean. Esan bezala, herriko ondarea erakusteko bisita gidatuak antolatzen dituzte. Interesatuak 943 77 91 28 telefono zenbakira deitu dezakete argibide eske.



Udan, herria erakusteko 64 bisita gidatu antolatu dituzte Turismo Bulegoan.

EDU MENDIBIL

INPRIMATEGIA

- INPRIMAKIAK OROKORREAN
- INPRIMATZEAK PAPER JARRAITUAN
- EZKONTZARAKO GONBIDAPENAK
- ENKOADERNAZIOAK
- KAUTXUZKO ZIGILUAK

Garbil

Artzamendi 4 20570 Bergara

Tel.: 943 76 23 28 faxa: 943 76 54 87

E-posta: imprentagarbil@euskalnet.net

PAPER - DENDA

- BULEGOKO MATERIALA LANTOKIRA ERAMATEN DUGU
- IRAILEAN ESKOLAKO MATERIALEAN ESKAINTZA BEREZIA
- ENPRESA-OPARIAK
- INFORMATIKARAKO OSAGARRIAK



Irailaren 15ean, eguaztena, izango da nagusien danborrada.

SAN MARTIN JAIK/ Bi asteburutan eta astean zehar izango ditugu ekitaldiak

San Martin Agirre jaietako egitaraua dagoeneko prest

AINTZANE IRIZAR

Dagoeneko prest dago San Martin jaietako egitaraua. Aurten, gainera, bi asteburutan eta astean zehar egongo dira ospakizun ekitaldiak. Ohiko azokaz, lehiaketaz eta txapelketaz gain, hainbat antzezlan, dantza ikuskizun eta musika emanaldi antolatuta dituzte.

Datorren aste egubakoitzean, hilak 10, hasiko dira San Martin jaiak, Dantza Askatuko Txapelketarekin. Zapatuan, Ispilu taldearen antzezlan bat ikusteko aukera izango dugu, eta domekan herri krosa.

Astean zehar ere hainbat ekitaldi izango ditugu; izan ere, aurten eguna da San Martin Agirre eguna. Bezperan, hilak 15, Kukulbiltxo taldearen kale antzerkia, pilota partiduak eta nagusien danborrada izango ditugu.

Hilaren 16an, San Martin Agirre eguna, ekitaldi mordoak izango dugu; aipatzekoak dira, besteak beste, sokamuturra, Udal

*Irailaren 10ean,
egubakoitza, hasiko
dituzte jaietako
ekitaldiak, dantza
txapelketarekin*

*Donostiako
Orfeoiaren
kontzertua izango
dugu zapatuan,
hilak 18*

Musika Bandaren kontzertua, haurren danborrada, disko festa eta suzko erruberak.

AZOKA, HILAREN 18AN

Egubakoitzerako, hilak 17, ekitaldi berezia antolatuta dute; gazta dastatze ikastaroa egongo da.

Gauean, berriz, Aukeran taldeak dantza ikuskizun paregabea eskainiko digu.

Zapatua, berriz, goizean goizetik gozatu beharreko eguna izango dugu. Barazki, fruta, gazta eta lore moztuen lehiaketa jokatuko dute San Martin plazan. Bergarako odolosteak dastatzeko aukera ere izango dugu goizean zehar. Arratsaldean, berriz, okela gisatuaren lehiaketa jokatuko dute eta iluntzean txahal saihekia dastatu ahal izango dugu.

Musika zaleek ere hitzordu interesgarria dute zapatu iluntzean; Donostiako Orfeoiaren kontzertua, San Pedro parrokiaren.

Domekan, hilak 19, bukatuko dira jaiak. Goizean Ageriko Pintura Lehiaketa jokatu da; baita amateur mailako txirrindulari lasterketa ere. Bestalde, Erreileno eta Tostoiaren Kofradiaren Kapituluak izango da. Jesus Alberdi *Egileor* bertsolaria, Aritzeta abesbatza, Gaspar jatetxea eta Jesus Mari Ugalde zientzialaria ohorezko kofradekide izendatu dituzte.

LABUR

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasturte hasiera Aranzadin datorren egunean

Aranzadi Ikastolako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek datorren egunean, hilaren 9an, hasiko dute 2004-2005 ikasturtea.

Edozein argibidetarako 943 76 90 71 telefono zenbakira jo dezakezue.


Ipintza institutuan martitzenean egingo dute kurtso berriaren aurkezpena

Ipintza institutuan kurtso berriaren aurkezpena egingo dute martitzenean, hilaren 7an. Ordutegia honako hau izango da: DBH lehen maila 11:00etan, DBH 2. maila 11:15ean, DBH 3. maila 11:30ean, DBH laugarren maila 11:45ean, Batxilerra lehen maila 11:00etan eta Batxilerra bigarren maila 11:30ean. Argibideak 943 76 31 42 telefono zenbakian.

Odol ateratzea egingo da eguaztenean, hilaren 8an, Seminarioan, 18:30ean hasita

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak aditzera eman duenez, odol ateratzea egingo dute datorren eguaztenean, irailak 8. Ohikoa denez, Seminarioan izango da, 18:30ean hasita.

Hurrengo odol ateratzeak ondoko egunetan egingo dira: irailaren 22an, eta urriaren 6an eta 20an.



Tomate erraldoia Gabriel Medinaren ortuan

Aurreko egubakoitzean Gabriel Medina bisitari izan genuen BERRIGARAKO erredakzioan. Moia Dorrearen inguruan ortua dauka Gabrielelek eta sorpresa galanta hartu zuen argazkian ikus dezakezen tomatea jasotzean. Aipatutako tomateak 1,835 kiloko pisua eman zuen. Entsalada ederra prestatzeko moduko pieza, dudarik ez!

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3, BERGARA Telefonoa: 943 76 35 71

Derm-Antiaging: azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.

Zahartzearen aurkako aurpegirako tratamendu zelularra

*

Kabiar-estraktuaz eginiko tratamendua

Zimurrak kentzea

Aurpegiaren birmoldaketarako tratamendua

Fito Hormonekin eginiko zahartzearen aurkako tratamendua

*

Kosmetikaren tolerantziarik eza

Aknearen tratamendua

Zahartzearen aurkako tratamendu

osoaren planifikazioa

Argaltze tratamendua

Bolumena gutxitzeko tratamendua

(sabela)

Orbainen eta estrien tratamendua

Tratamendu tinkatzailea eta zelulitisaren

aurkakoa

*

Menopausiaren ondorioen tratamendua

Estresaren aurkako masajeak

Masajea/benen tratamendu zirkulatorioa

*

Kiromasaje terapeutikoa

Berreziketa jateko ohiturak aldatzeko

*

Gizonezkoendako tratamendu bereziak

TRATAMENDU MEDIKOAK

Botox zahartzearen aurkako tratamendua

**Konpontze eta betetze tratamenduak ondorengo ezarpenekin:
kolagena, bio alcamid...**

Aurpegiko, lepoko, eskuetako eta paparreko orbanak kentzea

Ilearen erortzearen aurkako tratamendua

Maria Isabel Hurtado Dermatizista (Dietista titulua Granadako unibertsitatean. Erregistroa CA-29095)

Ariznoa

gimnasia

erritmiko

taldea




Irailaren 20an gimnasia erritmikoko denboraldia hasiko da. Kirol polit honetan interesatuta dauden 6 urtetik gorako neskek, dei dezatela telefono honetara informazioa jasotzeko: 943 76 56 75 (jabi).

Klaseak BERGARAn: martitzen, eguen eta egubakoitzetan, 18:00etan.

Boni Laskurain pasealekuko Aranzadi ikastolako gimnasioan.

Klaseak ANTZUOLAn: martitzen, eguazten eta eguenetan, 18:00etan.

GIMNASIA



Aupa neskek, anima zaitetze! Zuen zain gaude!

TXIRRINDULARITZA

Herriko hainbat lagun European zehar ibili dira udan, kirola eta turismoa uztartuz

Portugal, Norvegia edota Esloveniara iritsi dira herriko hainbat txirrinduzale; motxilak eta hankak arin, kilometroak egin dituzte European barrena

EDU MENDIBIL

Uda osoan eguzkitan etzanda egon barik, bada oportetan gorputza estutzen duen jendea ere bai. Aurten hainbat herritar izan dira abuztuan kirola eta turismoa uztartu dituztenak. European zehar bizikletan ibili diren hiru talderen berri iritsi zaigu erredakziora.

Beñat Aiausti, Xabier Eskibel, Unai Uribesalgo, Xabier Mondragon, Iñaki Larrañaga eta Aitor Sotil Portugalen izan dira. Abuztuaren 7an atera ziren autobusez Galiziara eta handik ekin zioten bizikletako ibilbideari. Vigotik atera ziren eta Portugal osoa zeharkatu zuten, San Vicente lurmuturreraino hain zuzen.

Guztira, 900 kilometro inguru egin zituzten bizikletan. Ibilbidean izan zuten bai lekuak ikusteko aukera: Oporto, Lisboa, Coimbra, Lagos, Faro... Iparraldean nahiko eguraldi eskasa izan zuten eta errepideak uste zutena baino hobek zirela adierazi digute: "Hala ere, bizikletan oso jende gutxi ikusi genuen. Gora-behera askoko errepideak topatu ditugu, baina ondo moldatu gara. Zortzi egun egin ditugu bizikletan eta Lisboaraino nahiko erritmo bizian joan ginen. Lisboan bi egun atsedean hartu genuen, hiria ondo ikusteko. Bizikletan joanda, gauzak ikusteko aukera ona dago".

Huelvara iritsitakoan, Punta Umbrian izan ziren, hondartzan, eta ondoren bi furgoneta alokatu zituzten Bergarara itzultzeko. Esperientzia polita iruditu zaie Portugal bizikletaz ezagutzea eta gauza bakarra bota dute faltan: "Praka eta zapata on batzuk, diskotekatan sartu ahal izateko".



ESTEBAN LAZKANOK

Aitor Intzak eta Esteban Lazkanok Norvegiatik Euskal Herrirako *tourra* egin dute. Argazkian, Alemanian.

Sei laguneko talde batek Portugal osoa zeharkatu du, iparretik hegoaldera 900 km eginez

ESLOVENIAN ETA KROAZIAN

Abuztuaren 4an abioian Veneziara heldu eta kanalen hiria bisitatu ondoren, Tarvisiorako tren hartu zuten Gorka Areitio, Ane Garces, Iker Osa eta Ainhoa Unamunok. Italia eta Eslovenia arteko mugan Alpes Julianos deituriko mendi katea dago eta hango

aldapa gogorretan bizikletan ibili zen laukote bergararra. Eslovenia ez da azalera handiko herrialdea eta bertako paisaietan murgildu ziren lau gazteak. Eslovenia osoa zeharkatu zuten eta Ljubljana hiriburura ere iritsi ziren. Dena dela, nahiago izan dute herri txikietan ibiltzea, turismo askoko tokietatik ihesi. Kroaziaraino ere iritsi ziren eta hango hiriburuan, Zagreben, Bergarako bikote batekin elkartu ziren. Kroaziako kostaldean ere leku ederrak ikusi zituztela adierazi digute. Hotelak, aterpetxeak eta bidean aurkitutako zelaiak ere tartekatu dituzte atsedena hartzeko. Guztira, 900 bat kilometro egin dituzte. Triesten bueltako tren hartu zuten Veneziaraino eta

Aitor Intzak eta Esteban Lazkanok Norvegiatik Euskal Herrirako bidaiari bizikletan egin dute

handik abioian itzuli ziren, abuztuaren 18an.

3.500 KILOMETRO BIZIKLETAN

Norvegiatik hona egundoko *tourra* egin dute Esteban Lazkanok eta Aitor Intzak. Uztailaren 12tik abuztuaren 9ra bitartean 3.500 kilometro inguru egin dituzte.

Norvegiara hegazkinez joan ziren eta iparraldean, Bodo herrian hasi zuten ibilbidea. Bizikleta baten garraioarekin abioi konpainiak izandako arazoak zirela eta, bi eguneko atzerapenarekin atera ziren. Egun oso argia zegoenez, errepidean eman zuten lehenbiziko egunean 02:00ak arte ibili ziren. Eguraldia ez zuten lagun izan Norvegiar, hasierako egun denetan zirimirri amaigabea izan baitzuten. Oslotik Danimarkara heltzeko ferrya hartu behar izan zuten eta Danimarka, Alemania, Holanda eta Belgikako errepideetan ibili ondoren, Bruselan bi eguneko atsedena hartu zuten: "Hiritara sartzea nahiko konplikatu zen eta hirietara heldu baino zertxobait lehenago tren hartzea zen onena. Ibilbidea gutxi gorabehera zehaztuta geneukan, baina indarren arabera erabakitzen genuen egun bakoitzean noraino heldu. Batean 130 kilometro egiten genituen, bestean 160... Gogorrena Danimarka egin zitzaigun, ia denbora guztian haizea kontra izan genuelako. Frantzia nahiko azkar zeharkatu genituen, opor egunak bukatzeaz zeudelako. Ia-ia erlojuaren kontra egin genituen azken egunak". Zakua eta kanpin detada eraman zuten bizikleta gainean eta lo edozein lekutan egin zutela esan digute: aterpeetan, bus geltokietan, supermerkatuetan...

Pariserira iritsitakoan, bizikletan ibili ziren batetik bestera, hiria ezagutzen, Eiffel Dorretik Champs Elysesera. Oso gustura ibili dira, kirola eta turismoa uztartuz. Esandako moduan, zintu bizian etorri ziren Parisetik Euskal Herrira, baina agindutako epean bete zuten ibilbidea. Guztiek ere merezi dute maillot horia, Armstrongen antzera.



XABIER ESKIBEL

Portugalera joandako lagunak ibilbidearen amaieran, San Vicente lurmuturrean.



ANE GARCES

Gorka Areitio, Ane Garces, Iker Osa eta Ainhoa Unamuno Esloveniako Bovec mendatean (1.611 metro).



Giartzu

KIROL ELKARTEA

Boni Laskurain 3 behea
Tel.: 943 76 35 71 20570 BERGARA



2004ko irailetik 2005eko uztaiera arteko denboraldia

Ordutegiak eta jarduerak

Ordua	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
7,30	STEPA	SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA	AEROBIKA	BODY-GIMA	STEPA
8,15	STEPA	SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA	AEROBIKA	BODY-GIMA	STEPA
9,00	AEROBIKA	SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA	BODY-GIMA	SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA	STEPA
10,00	AITONAK	SPINNINGA	AITONAK	SPINNINGA	AITONAK
15,00		SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA	BODY-GIMA	SASOIAN EGOTEKO GIMNASIA	
17,00	STEPA		ZIRKUITOA		STEPA
18,00	INFANTIL MAILAKO KARATEA	ZIRKUITUA	INFANTIL MAILAKO KARATEA	STEPA	INFANTIL MAILAKO KARATEA
19,00	BODY-GIMA	SPINNINGA	AEROBIKA	SPINNINGA	
20,00		HELDUEN MAILAKO		HELDUEN MAILAKO	CAPOEIRA
20,30	STEPA	KARATEA	BODY-GIMA	KARATEA	
21,00		SPINNINGA		SPINNINGA	

Larunbatak: Defentsa pertsonala 10:00etatik 11:30era

Muskulazio gela: Astelehenak-asteazkenak eta ostiralak 07:00etatik 22:00etara.
Astearteak eta ostegunak 07:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 22:00etara.

Aurtengo denboraldirako berrikuntzak

- **Capoeira, borroka arteak eta dantza:** (irakasle brasildarra)
Irailan etorri konpromisorik gabe probatzera, ostiraletan, 19:30etik 21:00etara.
- **Pilates:** klaseak urrian hasiko dira.
- **Tai-chia:** klaseak urrian hasiko dira.
- **Karatea:** 3 urtetik 5 urtera bitarteko umeendako bereziki.

Eraman beharrekoak: toalla eta gimnasioan ibiltzeko zapatilak.

FUTBOLA

Preferente mailako taldeak Pasajesen aurka hasiko du liga, zapatuan, Agorrosinen

Zapatuan Bergara Hiria txapelketa eskuratu ondoren, Igor Gordobil entrenatzaile berriak debut ofiziala egingo du Pasajesen aurka

EDU MENDIBIL

Bergara KEko preferente mailako futbol taldeak denboraldi lehen partidua jokatu du zapatuan, etxean, Pasajesen aurka, 16:30ean. Igor Gordobil eta Andoni Azkargorta entrenatzaileez gain, hainbat aurpegi berri dira aurten futbol talde nagusian.

Igor Gordobil entrenatzaile arrasatearra da taldeko nobedade nagusietako bat. Iaz Aretxabaleta taldea entrenatu zuen eta aurten mahoneroen gidaritz hartu du Gordobilek. Andoni Azkargorta antzuolarra izango du laguntzaile. Horiez gain, Arrasateko taldetik fitxatutako Ekain Garin aurrelaria da aurpegi berrietako bat. Aurreko denboraldian gol dezente egin zituen eta aurten ere taldeko erreferentzia nagusia izango da aurrean.

Bestalde, lehen erregional mailako taldean aritutako Iker Robles atezaina, Ander Elkoroberezibar, Txomin De Vega eta

Unai Arana defentsak eta Imanol Cabanillas aurrelaria talde nagusira igo dituzte. Era berean, gazteen taldean jardun zuten Ander Sesma atezainak eta Ibai Igarza erdilariak ere preferente mailan jokatu dute.

Bajei dagokionez, Iban Unanue, Ander Ruiz de Azua, Jon Sanchez, Josetxo Lizarralde, Andoni Arrieta eta Gorka San Vicentek ez dute taldean jarraituko.

AURKARI ZAILA HASTEKO

Ligako lehenbiziko partiduan aurkari zaila izango du Bergarak. Luis Fernando Dadie Realeko jokalaria ohiak zuzendutako taldea 3. mailan lehiatu zen aurreko denboraldian eta, UPVrekin batera, aurrean ibiltzeko faboritotako bat dugu. Hala ere, Bergarak hasiera ona eman nahi dio ligari. Zapatuan, Bergara Hiria txapelketako finalean, mahoneroek 3-0 irabazi zioten Mondrari.

Horren harira, arrasatearrak eta bergararrak aurrez aurre izango dira berriz hurrengo astean, ligako bigarren jardunaldian.



Bergarako jokalariek garaipen batekin hasi nahi dute liga. Hala ere, Pasajes ez da aurkari erraza izango.

GREMIOEN GIDA

zure etxearen osasun onerako



**AGIRRE
MARGOAK**

Ortuibar 1, 3-C
943 76 53 82
Tailerra:
Alkabieta 7

- Orotariko pintaketa lanak

J.M. IZAGIRRE
Igeltseritza

Loidi baserria,
Angiozar
943 76 56 86

- Teilatua, fatxada, sukalde eta bainugelen berrikuntza



Cantero Instalaciones

San Miguel 8/10
607 78 70 58

- Iturgintza
- Akreditazioa: gas ontziratua
- Galdaren mantentzea

ARREGI AROZTEGIA



Urteaga 20
943 76 11 73
Erakusketa:
Bidekurutzeta 38
943 76 31 03

- Orotariko arotz lanak
- Sukaldeak
- PVC leihoak

BERGARA
Margoak

Amillaga 1, 1. pab.
162 p.k.
943 76 97 31
F 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

- Orotariko pintaketa lanak
- K-21 agiria



UGARTE
ARROZTEGIA-ALTZARIAK

San Juan 1 A
943 76 54 91
F 943 76 08 04

- Orotariko arotz lanak
- Apainketa, soruak, leihoak, atek





Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 31. zenbakia

IEPA LAGUNOK!

Iepa lagunok!!

Aspaldiko! Zer moduz ibilli zarete oporretan? Ondo ezta? Ni be primeran ibilli naiz Euskal Herriko mendi eta hondartzetatik bueltaka.

Oraindik egun batzuk falta dira ikasturtia hasteko eta seguru nago gogo haundixa edukiko dozuela oporretako abenturak batak bestiari kontatzeko. Espero dot ale honetako jolasarekin asko gozatuko dozuela eta irakurri arretaz horoskopua.



URREZKO ARAUAK

- Anderrek ikutu nau.
- Aprobetxatu egizu eze hola gauza asko ikasi ko dozu.
- Anderrek ikutu dosta.
- Aprobetxatu egizu porke horrela gauza asko ikasiko dozu.



JOLASA

Ekarri zeinke pelotia?

Taldeko jokalaria batek begiak itxiko ditte zapi batekin. Bittartian gainontzeko jokalariek erdikua nork ikutu bihar daben aukeratuko dabe. Pertsona hori aukeratu bezain laister, honek erdiko jokalarixa ikutuko dau eta berehala bere lekura bueltauko da.

Erdiko jokalarixaren inguruan daren partaidiek: "Ezetz jakin zeinek ikutu zaittuen!" esango dabe. Momentu horretan erdiko jokalarixak zapixa kendu eta nork ikutu daben asmatu biharko dau. Asmatzen baldin badau, erditik irtengo da eta bera ikutu dabena jarriko da erdixan.



Asmatzen ez baldin badau, erdixan jarraituko dau nork ikutzen daben asmatu arte.

HOROSKOPUA



capricornio

Hasi egizu ikasturtia sasoitsu eta lanerako gogurekin, eze bestela gerora lan danak pillatuko jatzu eta.



libra

San Martiñak laister izango direnez, aprobetxatu egizu gurasuei paga haundixago eskatzeko.



aquarius

Aurtengoa ikasturtian lagun asko egin eta asko ikasi, ze bestela aukera paregabia galduko dozu.



leo

Zer dala eta ez jetzu zure lagunei hain ondo gordeta daukazu sekretu hori kontatzen?



piscis

San Martiñetako danborrada ikusi egizu bertan sorpresaren bat aurkitu zeinke eta.



scorpio

Oporrak bukatu ondoren, aste honetan nekatuta sentituko zara. Hala be laister San Martiñak izango dira eta indarberitu egin biharko zara.



cancer

Ia ba, aurtengo ikasturtia aurrekua baiño hobia daukazu! Zuk be ahalegintxo bat egin biharko dozu.



virgo

Aste mundiala edukiko dozu, bai lagunekin bai gurasuekin eta bai irakasle berrarekin.



sagittario

Udako gehiegikerixa danak pasa ondoren, salatu zaitte barazki eta fruta gehixago jaten.



aries

Inguruak beti adarra jotzen daukazula? Erakutsiezu zuk be adarra ondo jo zeinkiela.



geminis

Ikastetxera juateko gogorik ez daukazula? Juan zaitte lagunak gauza interesgarri asko kontatuko dotsue eta.



tauro

Ez dakizula asteburuan zer egin? Aprobetxatu egizu herrian izango dozun girua, lagun artian ederki pasatuko dozu!



Irailaren 18an, zapatua, San Martin azokaren barruan egingo dute gazta lehiaketa.

ARTXIBOA

GAZTA DASTATZE IKASTAROA/ Hilaren 8ra arte dago izena emateko aukera

Gazta dastatzen ikasteko aukera, San Martin jaietan

AINTZANE IRIZAR

San Martin jaietan urtero egiten dute gazta lehiaketa; horren harira, aurten ekitaldi berezia antolatu du Udaleko Kultura Sailak: gazta dastatze ikastaroa, hain zuzen ere. Hilaren 17an, egubakoitza, izango da hori, Kultura Etxean, 19:00etan.

San Martin azokaren barruan, urtero egiten dute gazta lehiaketa; ohituta gaude, zapatu eguerdi aldera, aditu mordoa gaztak dastatzen ikusten, plazan jartzen duten taularen gainean. Aurten go San Martin jaietan, baina, geuk izango dugu gazta dastatzen ikasteko aukera.

Udaleko Kultura Sailak Idiazabal Gazta Jatorrizko Izendaturaren Kontseilu Erregulatzailerekin elkarlanean antolatu du

ikastaro hori, eta kontseilu horretako kide bat etorriko da ikastaroa ematera. Irailaren 8ra arte dago izena emateko aukera, Kultura Saileko telefono zenbakira deituta: 943 77 91 59. Hogeita hamar lagunek bakarrik izango dute ikastaroa egiteko aukera, hortaz, lehenbailehen izena ematea komeni da.

Dastatze ikastaroa San Martin egunaren biharamunean, hilak 17, izango da Kultura Etxean, 19:00etan.

*Hogeita hamar
lagunek bakarrik
izango dute
ikastaroan parte
hartzeko aukera*

DASTATZEA BAINO GEHIAGO

Gazta dastatzea dastatze hutsa baino gehiago da; hau da, lehiaketetan, gazta bere osotasunean baloratzen dute epaileek, eta horixe ikasteko aukera izango dute ikastaroan parte hartzen duten herritarrek.

Gaztaren itxura da lehendabizi baloratzen dena: forma, proportzioak, zelako ertzak dituen, zelako azala duen...

Ondoren, gaztaren usaina baloratzen ikasi behar izaten da: garratzasuna, gozotasuna, kezatutakoa den... Usaimena lantzea, hortaz, garrantzitsua da dastatzaile batendako. Azkenik, benetan dastatzeko unea da, zaporea baloratzekoa, alegia.

Horretaz guztiaz gainera, dastatzea zein baldintzatan egin behar den eta dastatzaile batek zein baldintza bete behar dituen ere ikasiko dute.

'Aupa Etxebeste!' filma jaietan murgilduko da bihar, zapatua

AINTZANE IRIZAR

Asier Altuna *Kixi* bergararrak eta Telmo Esnalek zuzendutako *Aupa Etxebeste!* film luzea errotatzen hasi dira Bergarako kaleetan. Abuztuko azkeneko astean ekin zioten lanari eta datorren astean bukatuko dute.

Aktore ezagunak ikusi ahal izan ditugu egunotan herriko kaleetan: Ramon Agirre, Pako Sagarzazu, Elena Irureta eta Iban Garate, besteak beste.

Bihar, zapatua, jaietan murgilduko dute herria, filmerako; horretarako, jendetza batu nahi dute, jai-giroa jartzeko. Hortaz,

film horretan parte hartu nahi baduzue, bihar goizean, zapatua, duzue aukera.

Begarako Udal Musika Bandak ere izango du bere papera filmean; bihar, goizeko bederatzietan hasita, kalejira egingo du musika bandak, herriko jaiak izango balira bezala. San Martinen martxa joko dute.

Bandaz gain, herritar ugariak dihardu filmean parte hartzen; uztailean egin zuten *casting*-a eta jende ugari aurkeztu zen.

Filmerako kanpoko irudiak hartuko dituzte Bergaran; barrukoak, ordea, Pasai San Pedroko plato baten hartuko dituzte.



Telmo Esnal eta Asier Altuna filmeko zuzendariak, lanean.

JOXEAN ARTEAGA

LABUR

Kontzertu hirukoitza izango dugu Bergarako gaztetxean gaur, egubakoitza, 22:30ean

Abuztuko oporraldien ondoren, Bergarako gaztetxeok ekin diote berriro ekitaldiak antolatzeari. Gaur, egubakoitza, kontzertu hirukoitza izango dugu, 22:30ean hasita. Honako hiru talde hauek eskainiko dute kontzertua: Ostiada Oi, Hell Beer Boys eta Corrosion Cerebral taldeek, hain zuzen ere.

Jardun euskara elkarteak begiraleen lan poltsa osatu nahi du, urtean zehar lan egiteko

Jardun euskara elkarteak, ikasturte berriari begira, begiraleen lan poltsa osatu nahi du. Euskara elkarte horretako begirale izateko interesa dutenek honako helbide honetara bidali beharko dituzte euren curriculumak: Jardun euskara elkarte, Errotalde jauregia z/g, Kultura Etxea, Bergara. Datorren egubakoitza arte, irailaren 10era arte, duzue lan poltsarako curriculumak bidaltzeko aukera.

Deialdi horren gaineko argibide gehiago nahi izanez gero, honako telefono zenbaki honetara dei dezakezue: 943 76 36 61.

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61
BERGARA

BEHEKO
TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak



ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74



SHOTOKAN KARATE-DO



Orain dela 8 urte 10 ikasle gaur egun ia 100





- Karate klaseak hil honen 6an, astelehena, hasiko dira:

Umeak: 1. txanda, 17:30etik 18:30era
2. txanda, 18:30etik 19:30era

Nagusiak: 19:30etik 20:30era

- Ikastaroak Joxean Iñarra irakasleak emango ditu, titulu hauen jabea: Euskadiko selekzioko prestatzaile fisikoa, Gipuzkoako selekzioaren hautatzailea, Soin hezkuntzako lizentziatua (INEF)
- Harremanetarako deitu 615 79 90 78 telefonora edo zatoz Ipintza Institutuko DBH eraikuntzako gimnasio-
ra entrenamendu orduetan.

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

Ze kaletan daude Erdi Aroko etxe hauek?

GALDEDEBALDE

- | | | |
|---|---|---|
| <p>1.
Nork egin du Miguel Altuna ikastetxeko pabiloi berriko proiektua?</p> <p>A/ Iñaki Berasategik.
B/ Jose Manuel Ibargoienek.
C/ Juantxo Lopezek.</p> | <p>2.
Asier Altunarekin batera, nor da <i>Aupa Etxebeste!</i> filmeko zuzendaria?</p> <p>A/ Ane Muñoz.
B/ Telmo Esnal.
C/ Jose Ramon Escudero.</p> | <p>3.
Zein da Bergara KEko preferente mailako futból taldeko entrenatzailea?</p> <p>A/ Gorka Zelaia.
B/ Juanina Garai.
C/ Igor Gordobil.</p> |
|---|---|---|



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

MADDI GOENAGArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, **Maddi!** Uztaileko azken aleko galderen erantzunak: Bonofotoa: **Goenkalen.** / Galde debalde: **1-C, 2-B, 3-A.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO** BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ram esnea

Litro bateko brika.

0,55 €

92 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTXBOA

BERGARAROSPETSUAK

Juan Jauregi
Hurtado de la Sal

KOLDO PEREIRA

Juan Martinez Jauregi Hurtado de la Sal zen izen osoa. Zenbait autorek 1583an Bergaran jai zela dioten arren, gaur egun badirudi Sevilla izan zuela jaioterria. Nolanahi ere, aitaren aldeko ahaideak Bergarakoak ziren, XV. mendean dagoeneko Lizarralde eta Jauregitarren oinetxean finkatuta baitzeuden. Hain zuzen, Bergarako udaletxeko kapitulugelako sabaian dagoen irudietako bat Juanena berarena da. Bere anaiarik zaharrena, Martin, Sevillako erregidorea izan zen.

Bolada batean Italian egon zen, pinturaren teoria eta praktika ikasten, bai eta Italiako poeta handiak ezagutzen eta literatur arau modernoak jorratzen ere. 1607an Torquato Tassoren *Aminta* lanaren itzulpena argitaratu zuen Jauregik, eta Cervantesen ustez, hain zen ona, ezinezkoa zen jakitea zein zen itzulpena eta zein jatorrizkoa..


Mariana Loaysarekin ezkondu zen 1612an eta 1618an lehen olerki-liburua argitaratu zuen Sevillan, *Rimas* izenburuarekin. Handik urtebetera Madrila joan zen bizitzera, eta poesia lehiaketetan jardun zuen.

*Italian egon zen,
pinturaren teoria eta
praktika ikasten, baita
poesia ezagutzen ere*

- L** Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16 urte** bete aurretik!
Eta **autoarena** **18 urte** bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

ERRETRATUZAHARRA

ANTZUOLA

San Jose kooperatibaren sortzaileak

San Jose Obrero kooperatiba 1957. urtean sortu zuten. Lehenengo Kalegoin jarri zuten denda eta ondoren Buztinzurin. Denborarekin, Eroskik erosi zuen kooperatiba. Ondoko argazkian, kooperatibako sortzaileak ikus ditzakegu.

Behean, ezkerretik hasita: Julian Lizarralde, Benito Ramirez de Okariz, Manuel Zabalo, Patxi Jauregi, Emiliano Alonso, On Leandro parrokoa, On Jose eta Simon Artolazabal.

Bigarren ilaran: Inazio Badiola, Sebastian Bergaretxe, Faustino Garitano, Modesto Lete, Nikasio Muguruza, ezezaguna, Tomas Estenaga, ezezaguna, Felix Mariaca, Florencio Barrena, Laureano Mantzizidor, Joxe Agirre eta Patxi Gabilondo.

Hirugarren ilaran, ezkerretik hasita: Angel Jauregi, Pedro Gabilondo, Genaro Jauregi, Jabier Aristi, Antonio Narbaiza, Juan Zezeaga, Roke Agirre, Juan Murgiondo, Antonio Etxaniz, Jose Igartza, Jesus, Rafael Iturbe, Higinio Larrañaga, Pedro Larrea, Apitto Arriola, Luis Azkarate, Juanito Lizarralde, Paulino Fernandez de Arroiabe eta Remigio Larrea.

Goian: Justo Lizarralde, Migel Uranga, Antonio Iartza, Jose Alberdi, Julian Aranguren, Jose Lizarralde, Ramon Larrañaga, Mateo Arregi, Hermenegildo San Pedro eta Pepe Niño.

Argazkia: Juanita Zabalo



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943-76 12 32. BERGARA

U
UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIK FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8
BERGARA
943 76 53 12

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko irailaren 3a / 212. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Abuztuan hasi zituzten haurtzaindegia egokitze lanak Herri Ikastetxean

AINTZANE IRIZAR

Uztailean aurreratu genizuen moduan, herrian haurtzaindegia jartzeko prozesua aurrera doa; lanak irailean hastekoak ziren arren, azkenean, abuztuan hasi zituzten. Udaleko arduradunen asmoa da otsailerako martxan jartzea haurtzaindegia.

Uztaileko osoko bilkuran, haurtzaindegia eraikitze lanak esleitzeko baldintza pleguak onartu zituen udalbatzarrak. Lan horiekin irailean hasteko asmoa azaldu zuen Udalak orduan. Azkenean, baina, abuztuan hasi dituzte lanak. Horrela, eskolak hasi aurretik lanik zaratsuenak eta zikin handiena sortzen dutenak bukatuta egongo dira. Otsailerako haurtzaindegia zabaltzea espero dute Udaleko arduradunek.

Herri Ikastetxean bertan kokatuko dute haurtzaindegia, oraingo eraikinari atxikita, jolas-tokiaren ondoan.

Haurtzaindegiaren egokitzapen lanak Udalak hartu ditu bere gain; 300.000 bat euro inbertituko ditu horretan. Haurtzaindegiaren kudeaketaz eta hornikuntzaz, berriz, Haurreskolak Partzuergoa arduratuko da.



Abuztuan ekin zieten lanei, eskolak hasterako lanik handienak bukatuta izatearren.

AURREMATRIKULAZIOA

Haurtzaindegiak 0 eta 2 urte bitarteko herriko umeendako zerbitzua eskainiko du. Bi gela egongo dira: 0 eta 1 urte bitartekoendako gela bat eta 1 eta 2 urte bitartekoendako beste gela bat izango dute.

Plaza mugatuak izango ditu haurtzaindegiak eta herriko bertako umeek izango dute lehentasuna. Txikienen gelari dagokionez, zortzi bat umerendako lekua egongo da. 1 eta 2 urte bitarteko umeen gelari dagokionez, berriz, hamabi bat ume hartuko dituzte.

Esan bezala, haurtzaindegia otsailerako martxan jartzea da Udalaren asmoa. Horretarako, irailean bertan edo urrian zabalduko dute umeak aurrez matrikulatzeko epea. Egunotan erabakiko dituzte epe horiek eta herri-tarrei jakinaraziko diete.


HERRITARREN HITZA / Joseba Lezeta • Kazetaria

Olinpiar Jokoak eta Debagoiena

Antzuolak ez du kirolaririk izan Olinpiar Jokoetan. "Normala", esango duzue, arrazoiarekin. Ezta Debagoienak ere. Eskualde txikia gara, baina baita ekonomikoki oso garatua ere. Zumarragako Susana Fraile eta Mutrikuko Jon Belaustegi eskubaloijokalariak dira Atenasen izandako gipuzkoar kirolaririk gertukoena. Ez da arduratzeko moduko gabezia, kirolak alderdi asko ditu, baina aipatzeko geratzea ez da bidezkoa. Eskualdean kirolaren ardurarik duen norbait baldin bada, kontuan hartu beharko luke

behintzat. Erronka polita da datozen lau urteetarako.

Honekin lotuta, beste gai bat jar daiteke mahai gainean. Merezi ote du eskualdean goi mailako kirolari bultzada ematea, gora egin dezaketen gazteei laguntza ekonomikoa eta baliabideak ematea ala lan horiek Eusko Jaurlaritzaren, Diputazioaren eta Kirolgiren esku laga behar dira?



"Debagoienak, EAEko laugarren hiriak, ez du goi-goi mailako kirol talderik"

Debagoienak, Euskal Autonomia Erkidegoko laugarren hiriak, ez du goi-goi mailako kirol talderik. Beharbada, egokia goa litzateke, hain eskualde txikian, banakako kirolak bereziki bultzatu eta taldeetakoetan beheko mailak jorratu, behin edate batera heldutakoan beste irtenbide bat emateko. Baina hutsari buruz berba egitea da nire ariketa

hau. Aitortzen dut. Izan ere, nik hala uste dut, beste lehentasun batzuk ditu Debagoienak. Enpresek indartsu jarraitzea, garraio bideak hobetzea, herrien arteko loturak sendotzea, Unibertsitatea eta zerbitzu eskaintza handitzea hobe da. Ziur. Debagoienari buruz ari garenean horretaz jarduten dugu. Inor ez da ileei tiraka hasiko Pekinen lau urte barru eskualdeak kirol ordezkariak ez badu.

Bitartean, Tourrean Euskaltel taldea animatzera joango gara autobusez, tripak majo beteta.

LABUR

Finalista Eguna ospatuko dute etzi, domeka, Trekutzen

Urtero egiten duten moduan, Arrola mendizale elkarteak Finalista Eguna antolatu dute iraileko lehen astebururako. 09:00etan plazatik irtengo dira, eta Irimo ingurura ibilaldia egingo dute. Ondoren, salda eta txistorra banatuko diete Arrolakoek parte-hartzaileei.

Irailaren 11n eta 12an, berriz, Erratzuko kanpinera joango dira Arrolakoak. Hantxe, bi irteera egingo dituzte, zapatuan eta domekan.

Gaztegunea gaur, egubakoitza, irekiko dute

Gaztegunen lokala gaur, egubakoitza, zabalduko dute, abuztuan itxita egon eta gero. Lehenengo bi asteburuetan, gainera, egubakoitz gauetan ere zabalduko dute, 21:00etatik 23:00etara. Zapatuetan, 16:00etatik 20:00etara eta 21:00etatik 23:00etara egongo da zabalik; domeketan, berriz, 16:00etatik 21:00etara.

Bestalde, aipatzekoa da lokala txukuntzen ere hasi direla; besteak beste, egoitza margotu dute eta hainbat altzari jarri dituzte.

Sagastin sute txiki bat izan zen aurreko astean

Aurreko asteko martitzenean sute txiki bat izan zen Sagasti auzoan, orain dela gutxi bukatu dituzten etxebizitzien atzeko aldean. Sutea eragin zuena zein izan zen ez dakite; etxebizitzetako lanetan sortutako zerrautsak hartu zuen su, eta suhiltzaileek etorri behar izan zuten. Badi-rudi, baina, ez zutela behar bezala itzali, eta eguaztenean berriro piztu zen; herriar batzuek itzali zuten, azkenean. Udaleko arduradunek esan digutenez, obretan suak egitea debekatuta dute.

KIROLA

Lau futbol taldeak osatzea lortu du, azkenean, Antzuola Kirol Elkarteak eta dagoeneko hasi dira entrenatzen

AINZANE IRIZAR

Nahikoa lan izan dute Antzuola Kirol Elkarteak arduradunek futbol taldeak osatzeko. Erregional mailako taldea osatzea lortuko ote zuten beldur ziren, baina, azkenean lortu dute. Orain, entrenatzaile beharra dutela azaldu digute elkarteak arduradunek.

Oraingo asteko martitzenean izan zuten erregional mailako kideek denboraldiko lehen entrenamendu saioa. Denboraldiko lehen partidua, berriz, irailaren 19an izango dute.

Kostata, baina, lortu du Antzuola Kirol Elkarteak erregional mailako taldea osatzea. Dena dela, oraindik ere dei egin nahi diete futbol jokalaria izandako herritarrei taldean sartu daitezten. Aurtengo denboraldian Bergarako sei jokalaria izango ditu talde antzuolarrak; jokalaria horiek talderik gabe geratu dira, BKEk erregional mailako taldea kendu egin du-eta. Honako hauek dira jokalaria bergararrak: Martin Zaitegi, Manex Altuna, Alex

Abajo, Aitor Blanco, Jabi Berrando eta Andoni Ibaibarriaga. Momentuz, entrenatzaile bakarra du talde nagusiak, Gurutz Zabalo, hain zuzen ere.

Gazte mailako taldea ere hasita dago entrenamenduekin; abuztuaren 25ean, hain zuzen ere, ekin zieten denboraldi berriko entrenamenduei. Pablo Olalde eta Gaizka Asensio izango dira aurten ere gazteen entrenatzaileak.

Kadetei dagokienez, Mikel Larrañaga arduratuko da aurten gazteenak entrenatzeaz.

NESKEN TALDEA AURRERA ATERA DUTE

Azkeneko momentura arte zaltzan egon dira, baina, azkenean, nesken taldea ere lortu dute aurrera ateratzea. Jokalari gehienak iazko denboraldikoak izango dira, baina, badaude jokalaria berri batzuk ere.

Nesken taldean orain duten arazoa da entrenatzaile ez duteela. Hala ere, Jose Angel Fernandez arduratuko da taldea entrenatzeaz, entrenatzaile berri bat topatu bitartean.

Jose Angel Fernandez AKEko presidentek adierazi digu-




Martitzen arratsaldean egin zuen lehenengo entrenamendu saioa erregional mailako taldeak.

nez, horixe da orain duten arazo handiena: entrenatzaile falta, alegia. Izan ere, kadete mailan, entrenatzaile bakarra dute, Aritz Sai-

dik taldea laga eta gero; erregional mailako taldean antzeko zerbait gertatzen da: Gurutz Zabalo bakarrik dute, eta esan bezala,

nesken taldearendako ez dute entrenatzailearik topatzen, Iratxe Azkargortak kargua laga behar izan duelako.



Erretiratuen lokala, berrituta

Erretiratuek Zurrategin duten egoitzan hainbat berrikuntza lan egin dituzte abuztuaren zehar. Ikasturte berri-rako, toki atsegina izango dute herriko erretiratuek. Besteak beste, hormak margotu dituzte, estraktorea jarri dute, sukalde txiki bat egokitu dute harraska eta guzti. Hozkailua eta mikrouhin-labea ere jarriko dituzte.

Azkeneko aste honetan, berriz, lanak bukatu ondoren, egoitza garbitzen eta txukuntzen ibili dira erretiratuek eurak./A.I.

LABUR

Aerobik ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago irailaren 10era arte

Urtero moduan, aerobik ikastaroa antolatu du Antzuolako Udaleko Kirol Sailak. Dagoeneko zabalik dago ikastaro horretan izena emateko epea. Irailaren 1ean zabaldu zuten epea eta hilaren 10era arte egongo da zabalik. Interesatuak informazio gehiago lortuko dute udaletxean bertan, eta izena emateko ere hara jo beharko dute.

Abuztuko ordutegi berberarekin jarraituko dute mezek, apaiza sendatu bitartean

Uztail bukaeran gaixotu zen Rafael Eizagirre herriko parrokoa. Gauzak horrela, abuztuan Bergarako San Pedroko parroko Fidel Eizagirre, Rafaelen anaia, arduratu da Antzuolan mezak esateaz. Zapatuetan 19:30ean eta domeketan 11:30ean izan dira mezak hilabete osoan. Uzarragako elizan, berriz, ez da mezarik egon. Irailean ere ordutegi berberarekin jarraituko dute, parrokoa sendatu bitartean.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
**Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea**
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia
Buztinuzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
**Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak**
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko irailaren 3a / 196. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Baserri turismoko bi etxeak beteta eta taberna gehienak irekita abuztuan

IRATI AGIRREAZALDEGI

Oporrak amaitu dira askorendako, baina izan da abuztuan lanean geratu denik, ostalaritzan jarduten dutenak, besteak beste. Herriko taberna gehienak irekita egon dira eta baita baserri turismoko etxeak ere. Oporrak amaituta, Udala pozik azaldu da zerbitzu horiekin.

Elgeta oso herri turistikoa ez bada ere, udan kanpotik etorri da jendea bertara, eta haiei zein herrian bertan geratu diren herritarrei zerbitzu egokia emateko, azken urteetan ez bezala, Elgetako taberna gehienak zabalik egon dira abuztuan. Irekita egon dira baita ere herrian dauden baserri turismoko bi etxeak.

Tabernak zabalik egotea herriarendako positiboa izan dela esan digute Udaletik. "Kontuan hartuta inguruko herrietan hainbat jatetxe itxi egin dituztela oporrengatik, jendea Elgetara etorri da jatorduak egitera", esan digu Patxi Basauri alkateak.

BASERRI TURISMOA

Baserri turismoko bi etxe daude Elgetan: Barrenengua eta Eguz-



Eguzkitza (argazkian) eta Barrenengua, herrian dauden baserri turismoko bi etxeak beteta egon dira abuztuan.

kitza, eta abuztuan beteta egon dira biak. Hotela egun batzuetan zabaldu badute ere, hilabete gutxian ez da irekita egon.

Barrenenguak sei logela ditu eta hilabete osoan guztiak beteta izan direla jakinarazi digute; gauza bera gertatu da Eguzkitzako lau

logekin ere. Italia, Alemania, Zeelanda Berria, Frantzia, Gales zein Espainiatik bertatik etorri dira, gehienak Kataluniatik.

"Euskal Herriko erdigunean egonik kanpotar askok Elgeta aukeratzen du ostatu hartzeko"

Alkateak zera esan digu: "Gero eta jende gehiagok egiten du ostatuko erreserba Internet bidez. Elgeta Euskal Herriko erdigunean egonik egokitzat jotzen dute eta horregatik aukeratzen dute askok gure herria, gero hemendik mugitzeko. Inguruko txokoak ezagutzeaz gain, Elgeta bera ere bisitatzen dute eta baita bertako tabernetara joan ere".

Datorren urteari begira Udaletik ostalariekin egoteko asmoa azaldu dute. Bestalde, Basaurik esan digunez, "Mankomunitate-tik turismoa indartzeko ahalegina egin nahi da, baina tabernari eta ostalariek horren aldeko jarraera azaldu ezean ezinezkoa da".

Udalaren beste nahietako bat udako giroa alaitzeko ekitaldiren bat edo beste antolatzea ere bada.



Kutxaren plazako bulegoa berriz zabalik

Bost hilabetez itxita egon ostean, joan zen barikuan ireki zuten Kutxaren plazako bulegoa. Berrikuntzak egin dituzte bertan, eta lanek iraun bitartean San Roke kalera joan behar izan dute bezeroek. Barikutik aurrera bulegoa bera ez ezik kutxazain automatikoa ere plazan egongo da, lehengo toki berean. Kutxak eskerrak eman nahi dizkie bezeroei eta baita sortutako eragozpenengatik barkamena eskatu ere./I.A.

LABUR

Eguazten gauero zine emanaldiak eskainiko dituzte Espaloia Kafe Antzokian

Irailaren leian hasi ziren hilabete honetako zineklubeko film emanaldiak *El jurado* pelikularekin, eta datozen eguaztenetarako filmak ere zehaztu dituzte jadanik. Irailaren 8an *Bowling for Columbine* pelikula emango dute, 15ean *Camino a la perdición*, 22an *Boys don't cry* eta 29an *La pelota vasca, la piel contra la piedra*. Eguazteno, beraz, Espaloian dute hitzordua 21:30ean zinezaleek.

Bolatoki taberna itxita, baina kirol instalazioak zabalik hilaren 1a ezker

Kiroldegiko tabernaren ardura hartzeko deialdi publikoa egin arren inork ez du izena eman eta jaberik gabe jarraitzen du. Hala ere, irailaren 1a ezker kirol instalazioak irekita daude. Pilotalekua egunero 09:00etatik 21:00etara; eta gainontzekoak astelehen, eguazten eta barikuetan 18:00etan zabalduko dituzte eta martitzen eta eguenetan 17:45ean; itxi, berriz, 22:00etan. Zapatuan, 10:00etatik 14:00etara egongo dira zabalik, eta domekan itxita egongo dira.

HEZKUNTZA

Herri eskola egokitzen dihardute ikasturtea hasi aurretik

Ikasturtea hastear da herriko txikieneztat. Baina klaseei modu egokian ekiteko hainbat egokitzapen egiten dihardute eskolan. Haur eskolan azken konponketak egiten ari dira abian jarri aurretik, eta eskola-ko ganbaran psikomotrizitate gela ipini dute.

Asteon azken konponketak egiten ibili dira arotzak, iturginak eta beste hainbat langile haur eskola-berria izango dena egokitzeko.

Kolore biziz margotu eta umeendako marrazkiz apaindu dute gela. Bertan, erabilera askotariko gune bat, lotarako gela bat, sukaldea eta komuna daude.

Eskolara sartzean erraz jakin ahal izango da haur eskola non

dagoen. Izan ere, sarreran grafiti bat egingo dute.

Irailaren lean izendatu zuten haur eskolarako irakaslea, eta hilaren 6an hasiko da lanean. Bertara joateko izena eman duten hiru haurren gurasoekin bilerak egingo ditu lehenengo eta hilaren erdi aldera normaltasunez ipiniko da abian haur eskola.

TXIRIKIL AISIALDI TALDEA

Bestalde, irailaren lean ipini zuen abian Txirikil taldeak aisialdi eta zaintza zerbitzua.

Hiru umek eman dute izena eta Izaskun Oiangurenekin ibili dira iraileko lehenengo egunetan. Goizez ludotekan elkartu eta gero kalean jolasean ibiliko dira. Arratsalde, berriz, hainbat jolas egingo dituzte eta baita kantatu eta ipuinak kontatu ere.

Irailaren 8tik aurrera zerbitzu horri ludoteka zerbitzua gehituko zaio. Nahi duenak izena eman ahal izango du Kultura etxean eta hilean 30 euro ordainduta arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara joan ahal izango dira bertara. Ikasturtean zehar Nagore Oiangurennek hartuko du ludotekaren ardura.

HERRI ESKOLA

Herri eskolan ikasturtea irailaren 8an hasiko dute. Txikienak goizeko 09:00etatik 12:00ak arte egongo dira; Lehen Hezkuntza-koak, berriz, 13:00ak arte.

Eskolan ere ikasturte berria hasterako egin dute berrikuntzarik. Psikomotrizitate gela lekuz aldatu eta ganbaran gela handiago bat egin dute, hura ere kolore biziz margotua.



Haur eskolan azken konponketak egin dituzte aste honetan.

IRTEERAK

Nafarroara bi txango antolatu dituzte

Nafarroara joateko bi irteera antolatu dituzte irailerako. Lehenengoa Gares ingurura egingo dute; bigarren, berriz, Santiago Bidearen Nafarroako zatia ezagutzeko aukera izango dute txango horietan parte hartzen duten elgetarrek.

Nafarroa ezagutu nahi duten elgetarrek bi aukera izango dituzte irailean. Izan ere, bi irteera antolatu dituzte Nafarroako hainbat txoko ikusteko.

Lehenengo irteera irailaren 11n, zapatuan, izango da, eta Iruñetik pasatuta Garesera joango dira. Iruñean hamarretakoa egingo dute, eta oraindik zehazteke badago ere, baliteke upategi bat ikusteko aukera izatea. Bazkaria

Garesen, Ilzarbe jatetxean, izango da, eta bazkalostean, Lizarra bisitatuko dute. Bueltan Gasteizen geldialdia egin, askaria hartu eta etxerako bidea hartuko dute.

SANTIAGO BIDEA

Beste irteera Kutzak antolatu du eta irailaren 22an izango da. Goizean goiz Elgetatik irten eta Leiren hamarretakoa egiteaz gain, bisita gidatua izango da monasterioan. Ondoren, Zangozako Santa Maria eliza erromanikoa bisitatuko dute.

Bazkaria San Gillenen kondairarengatik ezaguna den Obanos herrian egingo dute, eta Eunateko antzinako ospitalea eta eliza ikusi eta gero, Garestik pasatuta bueltan etorriko dira Elgetara.

Interesatuak Kutzako bulegora jo beharko dute irailaren 6tik aurrera.



Txirrindulariak eta zaleak Elgetako gainean elkarrekin

Txirrindularitzaren inguruko 36 lagun elkartu ziren bazkaltzeko abuztuaren 26an, Elgetan, urteroko deiari erantzunez. Elgetako Txirrindulari Elkarteak gonbidatuta txirrindulari ezagunak, entrenatzaileak, kazetariak eta babesleak izan ziren, besteak beste. Silloniz, Gorospe, Lasa, Irizar, Ferraz, San Migel, Leanizbarrutia, Madariaga, Otaño, Gandarias, Galdos eta Perurena zeuden gonbidatuen artean. Hainbat urtean Loroño ere etorri zen Elgetako bazkarira. /I.A.

SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea
- Reflexologia
- Hidromasajea
- Kirol masajea
- Podologia



- Solariuma
- Drenaje linfatikoa
- Algekin eginiko estalkia
- Depilazioa laser bidez

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



PANA DE ROKUA JATETXEAL

- Eguneko menua
- Asteburuetan menu berezia
- Espezialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL.: 943 76 82 73

JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA

Goibekokale

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman) Zurradero 6, behea. 943 76 70 67 / 607 48 71 19
ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albaitari ofiziala) 943 76 43 29 / 609 54 16 13
IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak) Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA Isabel Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN Victor Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23
ARAMBURU HORTZ KLINIKA Telesforo Aranzadi 1. 943 76 02 46
AŞTIAZARAN SOLOZABAL Iparragirre 1, behea. 943 76 27 95
BERGARA HORTZ KLINIKA Bidekurutzeta 36, behea. 943 76 05 77
GOROSABEL J. Alberto Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88
CAVIGLIA Silvana S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54
IRIARTE Idoia Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65
SAINZ Ana Herriko plaza 4, ANTZUOLA. 943 78 71 69
TRIPALDI Enrike Justo Garate 1. 943 76 70 76

DIETISTAK

ALBERDI Mireia Olaran etxea, Herriko plaza 3, ANTZUOLA
 Ibargarai 44, BERGARA. 943 76 60 45 / 646 43 34 58

ERREHABILITAZIO FISIKOA

LOPEZ DE MUNAIN Francisco J. Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

FISIOTERAPEUTAK

ARZAK Miren (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71
BASTERRETxea, Maria Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

HOMEOPATA

GANUZA Susana Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

MASAILARIAK

AZPEITIA Iruñe Ibargarai 44, behea. 943 76 73 43
CASANELLAS Jabier Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78
ETXEBERRIA Ana Errekalde 6, behea. ANTZUOLA. 943 76 60 13

MEDIKUNTZA ESTETIKOA

BENITO Isabel Bidekurutzeta 46, behea. 943 76 52 62

MEDIKUNTZA OROKORRA

OXIRONDO KONTSULTATEGIA Boni Laskurain 2, behea. 943 76 20 50

OTORRINOLARINGOLOGOA

IGARTUA ALMANDOZ Julian Barrenkale 35-1 ezkerre. 943 76 70 91 630 653 202

PODOLOGOAK

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA Ikerleku Zeharbidea z/g. 943 76 07 84
AZPIAZU Arantzazu Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

PSIKIATRA

GALLASTEGI Pablo San Martin Plaza 2, 1-ekz. 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80
URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13
ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

YOGA

SAMADHI YOGA Masterreka 13, behea. 943 76 11 38 / 639 235 753

BERGARAKO
OSASUN GIDA
 OSASUNEZ BIZI IZATEKO.